



ZESTOAKO UDALA

AURKEZPENA ETA ERAKUNDEEN ARTEKO KONPROMEZUA

ZIOEN AZALPENA

Protokolo hau sinatu duten erakundeen ustez:

- Indarkeria matxista **emakumeengana emakume izate hutsagatik** zuzentzen da, haien portaerak eta adierazpenak gorabehera, eta haien **Giza Eskubideen urraketa** larria da.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxistak botere-harreman sozialak erreproduzitzen ditu, eta horren ondorioz, emakumeen eta gizonen arteko harremanetan **desberdintasun hierarkikoari** eusten zaio, eta lehenengoak mendekotasun-egoeran geratzen dira.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxistak **biztanleria osoari ere eragiten dio**. Biktimen ingurune hurbilenetik (lagunak, senideak, bikote berriak, etab.) bizilagunengana eta, oro har, herritarrengana. Prebentzio-, arreta- eta erreparazio-esku-hartzeek, beraz, indarkeria horren ondorioak bizi dituzten pertsona guztiak ere barne hartu behar dituzte.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxista **osasun publikoko arazo** a da; izan ere, biktimei eragindako kalteak sufrimendu edo kalte fisiko, sexual, psikologiko eta sozialak dira, bai eta arlo sozioekonomikokoak edo ondarekoak ere, eta, oro har, zuzeneko biktimen, esposizioagatiko biktimen eta indarkeria matxistaren bikarioen osasuna hondatzen dute.
- Indarkeria matxista zuzentzen da, halaber, sexu eta genero binarismoa ezartzen duen eta LGTB IQA+ pertsona eta kolektiboetan adierazitako aniztasuna baztertzen duen **sexuaren-generoaren-sexualitatearen** sistema nagusian ezarritako arauen barruan jokatzeko, adierazten edo txertatzen ez den pertsona ororen kontra.
- Protokolo honek etengabe hobetzeko bokazioa azpimarratu nahi du, hau da, ez da dokumentu itxia, baizik eta koordinatzeko eta jarraipena egiteko prestatutako espazioetan **hautemandako beharretara egokitzen** joango da.



ZESTOAKO UDALA

ERABAKI DA

LEHENENGOA: Parte hartzen duten erakundeek protokolo hau sinatzea, hura aplikatzeko benetako konpromisoaren erakusgarri.

BIGARRENA: Prozeduren jarraipena eta eguneratzea lan-mahai iraunkorren, honako hauek parte hartuta: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Berdintasun Zerbitzua, Osasun Zentroa, herriko ikastetxe publikoa eta Azkoitiako Ertzaintza.

HIRUGARRENA: Bizirik atera diren biktimekiko esku-hartzean eragin zuzena duten azken lege-aldaketei buruzko prestakuntza ematea eta etengabe eguneratzea.

LAUGARRENA: Esku-hartzea etengabe hobetzearen eta biktimaren kontzeptua zabaltzearen alde egitea. Horretarako, indarkeria matxistaren, arretaren eta esku-hartzearen arloko prestakuntza espezifikoak eskaintzea, LGTBIQA+ kolektiboetako pertsonen aurkako indarkeria barne hartzen dutenak.

BOSGARRENA: Protokolo honen edukiak zabaltzea indarkeria matxistaren detekzioan, prebentzioan eta arretan zuzenean edo zeharka zeregina duten langileen artean.

SEIGARRENA: Udalerrian genero-indarkeriaren eta bestelako indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen eta adingabeen kopuruari buruzko datuen erregistroa izatea. Datu horien azterketaren helburua izango da ahalik eta hobekien ezagutzea eragindako biztanleria mota, eta laguntza eskatzeko prozesuan dituzten premiak eta zailtasunak.

ZAZPIGARRENA: Emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzea, hari aurre egitea, konpontzea eta desagerraraztea xede duten politikak berdintasun-politiken barruan kokatu behar dira, eta EAeko administrazio publikoetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumena duten organoek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, lidergo eta koordinazio orokorreko eginkizuna bete behar dute.¹

ZORTZIGARRENA: Gizarte-zerbitzuen arloan eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumena duten organoen arteko koordinazio-espazioak sustatuko dira, arreta-ereduen baterako definizioa errazteko, esku-hartzean genero-ikuspegia txertatzeko eta arreta hobetzen lagunduko duten lankidetzeta-mekanismo egonkorak sortzeko².

1 EAeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako 4/2005 Legearen VII. Kapituluko xedapen orokorrak.

2 EAeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako 4/2005 Legearen 56. artikulua.



ZESTOAKO UDALA



ZESTOAKO UDALA

BILDU DIRA

MIKEL ARREGI URRUTIA
ZESTOAKO UDALA
ALKATEA



JAVIER BRAVO URBIETA
UROLA KOSTAKO ERTZAIN-ETXEA
HIRITARREN BABESERAKO ARLO BURUA



Osakidetza

JOSE AGUSTIN AGIRRE ARANBURU
DONOSTIALDEAKO OSI
GERENTEA



AMAIA MANTEROLA LARRAÑAGA
ZESTOAKO HERRI ESKOLA
ZUZENDARITZA

AMAIA SARRIEGUI ULIBARRI
ARROA ESKOLA
ZUZENDARITZA

OROITZ MANTEROLA ALDALUR
AIZARNAKO ESKOLA
ZUZENDARITZA

Zestoan, 2023ko martxoaren 29